

«Herri izaerak gero eta presentzia handiagoa du Altzako bertso-saioetan»

Maiatzaren 6an, Altzako VI. Bertso Astearen barruan, auzoko bertsolari eta gai-jartzaile Unai Elizasu Altzako bertsolari-tzaz mintzatuko da Casares kultur etxean.


Zeintzuk dira Altzako bertsolaritzaren berezitasunak?

Txirrita izan dugu mugarri. Altzan jaio ez bazen ere, urte batzuk eman zituen gurean. Irabazi zituen Euskal Herriko Bertsolari-tza Txapelketen ildotik, liburu batzuetan altzatarra zela esaten da. Ez dakit Altzan bizi zelako idatzi ote zuten hori, edo Txirritak berak esan zuelako altzatarizat zuela bere burua. Zalantzak zalantza, altzatarra zela esateko atrebentzia har dezakegula uste dut.

Gainerakoan, Altzak ez du bertsolari-tzarekiko lotura handirik. Hori bai, nabarmentzekoa da Altzan saio dezente egin direla azken 15-20 urteetan. Urteotan, bestalde, herri kontzientziak Altzako bertso-saioetan gero eta presentzia handiagoa du.

Zergatik ari dira bertsolariak herri izaera hori kontuan hartzen?

Garai batean, baserri giroa nagusi zenean, herri giroaren kezka nagusiak baserri kontuekin lotuta zeuden, eta bertso-saioetan tankera horretako gaiez aritzen ziren bertsolariak. Azkenaldian, jabetu gara baserriak galtzen ari garela, kanpotar asko etorri dela Al-



tzara... Finean, konturatu gara herri bat garela. Gaia hitzetik hortzera dabil, eta bertso-saioetan ere aipatzen da. Bertsolari gazteek, gainera, aurrekoekin alderatuta beste erreferentzi batzuk dituzte, tartean herri izaera hori.

Gai-jartzaile ere bazara. Saioetan jarritako gaiek izan al dute eraginik kontzientzia hartze horretan?

Eragin handia. Bertsolari-tzaren gorakada gertatu zenean, Lizaso, Egaña edota Eguzkitze-rekin leku batetik bestera zebiltzan gai-jartzaileak Altzara ere etortzen ziren. Bazekiten baserriak desagertzen hasi zirela, etorkin ugari etortzen ari zela gurera, baina herri izaerari ez zioten lehentasunik ematen. Orain dela 15 bat urte, ordea, Altzako bertso-

«Txirrita altzatarra zela esateko atrebentzia har dezakegu»

saioetan bertako gaiak jartzen hasi ziren, eta hori funtsezkoa izan zen bertsolariak Altzako herri kontzientziak aritzeko.

Eta etorkizunari begira, zer?

Xenpelar, Txirrita eta Peio Errotaren garaian Altza erreferentzia leku omen zen, sagardotegi pila zegoelako. Beraz, giroak laguntzen zuen bertso-tan jarduteko. Baina, sagardotegiak galtzarekin batera, bertsolari-tzak behera egin du. Horri buelta ematea zaila iruditzen zait. Altzan, oro har, bertso gose handirik ez dago... Dena dela, azken bi urteetan Santa Ixabel eguneko bertso-saioa –Altzan egiten den saio garrantzitsuena– gazte asko hurbildu ziren.

Bestelako ekitaldiak

Unai Elizasuren hitzaldia maiatzaren 6an izango da, 20.00tan Casaresen. Baina, horretaz gain, beste bi ekitaldi egingo dira bertso-astearen Ostiralean, maiatzak 7, Xabier Silveira, Fredi Paia eta Jokin Uranga bertsoetan ariko dira Nido tabernan, 21:30ean. Larunbatean, maiatzak 8, bertso-afaria egingo da Herrera elkartean Jon Martin eta Josu Ojartzabal bertsolariekin. Imanol Esoain ariko da gai-jartzaile lanetan. Bertso afarirako txartelak Nido, Elozegi, Ipox eta Eliz Ondo tabernetan eros daitezke, 15 eurotan.

ZAHARRAK BERRI

XOU

XABIER SILVEIRA
JOKIN URANGA
FREDI PAIA

Animatu!